

2019KO KUDEAKETA TXOSTENA

2019an, ur-ekoizpena 30.335.107 m³-koa izan da, 2018an baino %2,60 handiagoa eta azken bost urteetako batezbestekoa baino %1,34 handiagoa. Ekoizpenaren emendatze txiki bat izan da, bai urtean zehar, bai udako kontsumoari lotuta ez dauden hilabeteetan ere. Erregistratutako tenperatura altuek eragin dute ekain eta uztaileko ekoizpen handia.

Iruñean, urteko prezipitazioa 1.066 mm-koa izan da, batezbesteko historikoa baino %30 handiagoa. Hain zuzen, 2013aren ondoren, mende osoan prezipitazio handiena izan den bigarren urtea izan da. Urtarril, azaro eta abenduko prezipitazio handiak, eta otsail eta martxoko txikiak nabarmendu behar dira.

Tiebasko EUTEren funtzionamendua programatutakoaren arabera egin zen: ekainaren 25ean jarri zen martxan eta urriaren 17an itxi zen, eta, guztira, 115 egun eman zituen lanean. Aldi horretan izan ziren beharren %28 ekoitzi zituen.

Hornidura-sarearen ustiapen-eremutik dagokionez, behin-behineko datuek adierazten dute erregistratu gabeko uraren adierazlearen emaitza %9,57koa izan dela, aurreko urtekoa baino pitin bat baxuagoa. Nabarmendu behar da laugarren urtez jarraian erregistratu gabeko uraren bolumena, 2.901.745 m³, 3.000.000 m³ baino txikiagoa izatea lortu dela.

Erregistratu gabeko uraren datua oso ona da, kontuan hartuta ekoiztutako eta kontsumitutako bolumenak baxua izaten duela eta sareak berritzean egindako inbertsioak gomendatutakoak baino askoz ere txikiagoak direla, azpiegituren balioari eusteko. Nahiko gaztea den azpiegitura bat dugu eta ongi dago; edonola ere, epe ertainean eta luzean inbertsio garrantzitsuak egin behar dira, zerbitzu eraginkorrari, etengabeari eta kalitatekoari eusteko.

Gauzatu diren ekintza nagusiak hauek izan dira: sektORIZAZIO-politika, erregistratu gabeko uraren datuak lortzea sektore dinamikoaren arabera, datuak aztertzeke tresna berriei esker, ur-ihesak bilatzeko teknologia berriak erabiltzea, zerbitzu-presioa murriztea, emari-neurgailuak berritzea, haien fidagarritasuna hobetzeko, eta ur-ihesak konpontzea.

Uraren kalitateari dagokionez, urtea normaltasunez joan da eta ez da gorabehera nabarmenik gertatu, Ostiz-Olaibarko hornidura linean gertatutako kasu puntual batzuk izan ezik. Zehazki, Lantzeko iturburuko bilketa-eremuan euri gogorren ondoriozko kasuak izan dira.

Beste alde batetik, Uraren Osasun Plana hedatzen jarraitu da, 2013an egindako diagnostikoko arrisku adierazgarriak minimizatuta. Urte honetan egindako mugari garrantzitsu hauek nabarmendu behar dira:

- Urtasungo EUTE eraberritzeko II. fasearen lehen zatia egin da. Dekantazio-tanga bat eraberritu da, eta bigarren dekantazio-tanga eraberrituta amaituko da, 2020ko lehen hiruhilekoan. Halaber, ikatz aktibatua dosifikazioa egiten jarraitu da, ur gordinean gai organikoaren kontzentrazio handiagoko garaietan, eta emaitza uraren kalitatea hobetzea izan da.
- Olaibar hornitzeko obra amaitu da, eta IMn sartu dira Olabe, Olaitz eta Enderitz herriak.
- Ur-biltegien prebentziozko mantentzea egiteko plana gauzatzen jarraitu da, bost urtean behin hustu eta garbituta. Aurten, hain zuzen, biltegi guztiak garbitzeko ziklo osoa amaitu da lehenbiziko aldiz.

- Klorofiloen segimendua egin da Eugiko urtegiari, noizean behingo laginketa eta analitikatik eta perfiladorean jasotako joeretatik abiatuta. Ikusi da pitin bat handitu dela edukia.
- Hornitutako uraren segimendua egin da, amianto-zuntzei eta Bisfenol Ari dagokionez. Emaitzak ezin hobekak izan dira, eta ez da anomaliarik erregistratu.

Saneamenduari dagokionez, 2019ko ekintza aipagarriena Arazuriko Hondakin Uren Ponpatze Estazioa kolektore eta ponpaketa berria martxan hastea izan da, Ororbia, Zuasti, Orkoi eta Arazuri udalerrien hondakin-urak bulkatzeko Arazuriko HUAra (guztira, 5.607 biztanle hartzen dituzte). Bulkatzen den emaria nabarmen handitu da, eta ponpaketa zaharraren ahalmen-arazoak konpondu dira, hartara. Gainera, gainezkabidean arbastatzeko sistema bat du, Hondakin Uren Ponpatze Estazioaren ponpatze-ahalmenaren gainetik isurtzen denean solidoak kentzeko aukera ematen duena.

Era berean, 2019an, Noingo Hondakin Uren Ponpatze Estazioa birmoldatzeko lanak hasi ziren, eta aurreikusita dago 2020ko lehen sei hilabetean amaitzea. Sarearen ahulgune bat konponduko du, Imarkoain, Dorre, Oritz, Zulueta, Zabalegi eta Elortz udalerriei zerbitzua ematen diena (guztira, 1.291 biztanle dira). Ponpaketa Arazuriko HUAra konektatuta dago.

Arazketa dela-eta, nabarmendu behar da Ebroko Ur Konfederazioak Arazuriko HUAren isurtze-baimena eman duela 2024 arte, egungo baldintzen antzekoetan.

Arazuriko HUAren emari influentea 37.593.129 m³-koa izan da, azken bost urteetako batezbestekoa baino %3,39 gehiago. Karga kutsatzailea, ordea, 656.250 biztanle baliokidekoa izan da, azken bost urteetako batezbestekoa baino %10,27 handiagoa.

Karga emendatzearen ondorioetako bat izan da sortutako lohi-kantitatea handitzea, 41.294 tona, aurreko urtean baino %2,26 gehiago eta azken urteetako batezbestekoa baino %19,22 gehiago.

Biogas-ekoizpena handitzea ere ekarri du: 5.810.915 m³ biogas sortu da, 2018an baino %8,6 gehiago eta azken bost urteetako batezbestekoa baino %15,49 gehiago. Nabarmendu behar da, HUAren errendimendu elektrikoa %103,9koa izan dela, azken bost urteetako %95,2ko batezbestekoa baino handiagoa, eta, gainera, araztegi inoiz lortutako handiena. Arazuriko HUAren bizitzan, ekoiztutako energia prozesuan kontsumitutako energia baino gehiago izan den lehen urtea izan da.

	2017	2018	2019
Ur-ekoizpena, guztira	30.087.916	29.566.180	30.335.107

Analisi bidezko kontrola

Analisi bidezko kontrola	Laginak	Parametroak
Hornidura-iturriak	612	11.648
Ura edateko on bihurtzeko prozesua	2.432	7.480
Tratatutako urak	541	16.106
Ur-biltegiak	680	20.572
Banaketa-sarea	181	6.251
Kontsumoko iturria	421	7.253
Isuriak ibilgura	144	526
Eskaerak (SCPSA)	302	1.473
Eskaerak (kanpokoak)	166	841
Kalitate-kontrola eta barnekoak, laborategia	1.028	4.699
Kontrolak, guztira	6.507	76.849

Kontrolen emaitzak

Banaketa-sarea eta kontsumoko iturria	Emaitza konformeen %
Hornitutako uraren kalitate organoleptikoa	%100
Hornitutako uraren kalitate mikrobiologikoa	%99,9
Hornitutako uraren kalitate kimikoa	%99,9
Erradioaktibitate-eza, aztertutako laginetan	%100

Edateko uren araztegiak (EUTEak)	Emaitza konformeen %
Hornitutako uraren kalitate organoleptikoa	%100
Hornitutako uraren kalitate mikrobiologikoa	%99,9
Hornitutako uraren kalitate kimikoa	%99,8
Erradioaktibitate-eza, aztertutako laginetan	%100

Kontsumoa (m³)

		2017	2018	2019
		m ³	m ³	m ³
Zerbitzu publikoak	Administrazio publikoak	453.168	506.069	497.898
	Udal-zerbitzuak	989.243	915.655	941.759
	Interes sozialeko erabilera	672.521	609.257	600.552
Zerbitzu publikoak, guztira		2.114.932	2.030.981	2.040.209
Merkataritza-industria	Nekazaritza eta abeltzaintza	1.612	2.403	1.979
	Merkataritza	3.845.895	3.840.872	3.991.805
	Merkataritza/ureztatzea	48.466	47.672	49.911
	Suteak, aho zigilatuak	23	26	23
	Suteak, kontagailuarekin	9.791	9.126	18.181
	Industria	1.768.279	1.781.745	1.841.880
	Jarduerarik gabeko lokalak	0	0	0
	Obrak	91.481	105.473	124.078
Behin-behineko zerbitzu berezia		41.340	50.157	22.465
Merkataritza-industria, guztira		5.836.887	5.837.474	6.050.322
Etxebizitzak	Etxebizitzak	12.319.100	12.382.723	12.506.878
	Etxebizitzak/merkataritza	30.739	25.803	33.275
	Etxebizitzak/merkataritza/ureztatzea	6.458	6.563	6.810
	Etxebizitzak/ureztatzea	2.673.054	2.551.139	2.695.019
Etxebizitzak, guztira		15.029.351	14.966.228	15.241.982
Apaingarriak-ureztatzeak	Iturriak	67.543	66.768	68.690
	Aisiako baratzeak	59.682	47.921	58.208
	Ureztatze pribatua	693.028	630.303	707.959
	Ureztatze publikoa	602.991	532.948	563.677
	Udal-ureztatzea	2.492.206	2.153.472	2.200.738
Apaingarriak-ureztatzeak, guztira		3.915.450	3.431.412	3.599.271
Hornidura tokiko erakundeei	Hornidura tokiko erakundeei	44.998	41.697	79.095
Hornidura tokiko erakundeei, guztira		44.998	41.697	79.095
Kontsumoa, guztira		26.941.618	26.307.792	27.010.880

Kontsumoa (litroak biztanleak eguneko)

--	--	--	--	--

	2017	2018	2019
Etxebizitzetakoak	115	113	113
Industria-merkataritza	44	44	45
Iturriak eta ureztatzeak	30	26	27
Kontsumoaren emaitzak, guztira	205	198	201

Saneamendua eta arazketa

	2017	2018	2019
Industria-isurketen kontrola			
Ikuskatzeak industriei	42	35	35
Ikuskatzeak tokiko araztegiei		17	16
Jarduera sailkatuen espedienteak	163	154	144
Beste txosten batzuk	57	65	49
Isurketa etenen baimenak		96	105
Ibilgura isurtzeko baimenak		8	8
Arazuriko HUAren errendimenduak			
Tratatutako ur-emaria	33.068.337	41.961.652	37.593.129
Solido esekiak	%96,7	%95,8	%97,4
Oxigeno-eskaera kimikoa	%94,5	%93,7	%94,9
Oxigeno-eskaera biologikoa	%97,0	%95,7	%96,6
Nitrogenoa	%78,0	%73,5	%81,2
Fosforoa	%87,4	%88,7	%91,9
Kontrola eta mantentzea prozesuan			
Ekipoak, guztira, linean		36	38
OTen kopurua		500	398
Ratio zuzentzailea/prebentziozkoa		%3,7	%3,1
Prebentziozkoa betetzearen ratioa		%94,2	%97,0

Analisi bidezko kontrola	2017		2018		2019	
	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak
Hondakin-uren tratamendua	3.091	9.307	3.351	9.569	3.556	9.900
Biosolidoen tratamendua	306	2.509	307	2.455	301	2.406
Kolektoreen kontrola	705	17.774	712	18.376	756	19.197
Barneko analisi bidezko kontrola, guztira	4.102	29.590	4.370	30.400	4.613	31.503

Analisi bidezko kontrola laborategian	2017		2018		2019	
	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak	Laginak	Parametroak
HUAko lohien lineak	3.091	9.307	3.351	9.569	3.556	9.900
Industria-isurketak	918	12.082	965	11.583	939	11.884
Uraren linea, HUA	705	17.774	712	18.376	756	19.197
Hobi septikoetan	183	2.491	218	2.069	217	2.958
Ibilguen kontrola	31	840	34	900	37	997
Lohi deshidratatua eta konposta	306	2.509	307	2.455	301	2.406
Barneko kontrola, guztira	5.234	45.003	5.587	44.952	5.754	47.342
Kanpoko analisiak eta zenbait	5.429	51.324	4.571	50.581	5.287	56.984
Laborategiko analisiak, guztira	10.663	96.327	10.158	95.533	11.041	104.326

Hornidura-iturriak

Artetako iturburua

Udarbe ibaiaren buruan.

- Biltzeko azalera: 100 km
- Iturburuaren batez besteko emaria: 3.230 l/s
- Hornidurarako baliatutako batez besteko emaria: 522 l/s
- Energia hidroelektrikoa ekoizteko baliatutako batez besteko emaria: 1.424 l/s
- Udarbe ibaira isuritako batez besteko emaria: 1.284 l/s

Eugiko urtegia

Arga ibaiaren buruan.

- Oinplano makotua duen grabitate-presa
- Ibaiaren mailaren gaineko garaiera: 44,3 m.
- Luzera: 252 m
- Presaren bolumena: 21 hm³
- Kota maximoa: 628 m
- Azalera: 123 ha
- Batez besteko sakonera: 18 m
- Bertan ura zenbat egoten den: 2-5 hilabete

Itoizko urtegia

Kokapena: Irati ibaia (Longira ibarra)

- Presa-mota: grabitatekoa, hormigoi arruntarekin egina
- Zimenduen gaineko garaiera handiena: 122 m
- Bururatze-luzera: 525 m
- Bururatze-kota: 592 m
- Gehieneko mailan normalean estalita dagoen azalera: 1.100 ha
- Ur-mailak normalean gehienez duen edukiera: 418 hm³

Edateko ura tratatzea

- Urtasungo EUTE. Tratatze ahalmena: 1.050 l/s
- Egillorko EUTE. Tratatze ahalmena: 800 l/s
- Tiebasko EUTE. Tratatze ahalmena: 1.000 l/s

Hornidura-sarea

- Luzera: 1.478 km
- Harguneak: 43.401
- Ur-biltegiak: 139 unitate. Edukiera: 268.564 m³
- Ponpatzeak: 56
- Emari-neurgailuak: 1.549

Saneamendu-sarea

- Luzera: 1.678 km
- Harguneak: 71.681

Ekaitz-urak biltzeko biltegiak

- Txantreako ekaitz-urak biltzeko biltegia
- V=3.000 m³ C2 kolektorera

Hondakin-uretarako instalazioak

	Ezaugarriak	kop.	Zerbitzua ematen zaien herritarrak
Arazuriko HUA	Tratamendu osoa: lehen mailakoa + biologikoa (nitrifikazio desfosforizazioarekin) Biosolidoak birziklatzeko planta, kogenerazio-planta	1	595.226
Hobi septikoak	Iragazki biologikoa dutenak	119	-